

Kimu 2018. Oihane Enbeita. Aztarnatxoak.

Otsaila

FETEM ANTZERKI FERIA

Otsailaren 21etik 23ra

Nana. Proyectionana.

Salüq. Maquinant teatre.

Jon Braun. Anita Maravillas Teatro&Portal 71.

En las nubes. La Negra Konpainia.

Aquí hay búho encerrado. Konstelasjonen (Noruega).

Redondo. Caramuxo Teatro.

Martxoa

DRAMATURGIA BERRIAK. IKASTARO TEORIKO PRAKTIKOA.

Bilboeszenak eta Alanbike Teatrok antolatuta, Otxarkoagako udal liburutegian burutu zen ikastaro hau.

- Tamara Gutiérrez (Santander, 1993). Martxoak 10 eta 11

Guztira 12 ordu

- Alberto Conejero (Jaen, 1978) Martxoak 16an, 17 eta 18

Guztira 16 ordu

- María Velasco (Burgos, 1984) Martxoak 24 eta 25

Guztira 12 ordu

Dramaturgia garaikidearen aurrekariak, egitura klasikoa, egitura garaikidea, posdramatikoa, absurdoaren antzerkia... Dramaturgiaren aukera eta zirrikitu guztietatik ixuri genuen tinta hiru ikastaro mardul hauetan. Idazten entrenatu ginen eta informazio mordoa jaso genuen etxera eraman eta pixkanaka asimilatu eta lantzeko.

Apirila

CLOWN ESENCIAL. IKASTARO PRAKTIKOA.

Iruñeako Laskurain Zentroan burutu zen ikastaro hau.

-Alain Vigneau (Frantzia, 1959) Apirilak 28 eta 29

Guztira 13 ordu

Honela ageri zen kartelean:

“Clown Esencial es la celebración de nuestra tragicómicidad. Su enfoque contempla la persona en su absoluta totalidad, considerando su estructura psicocorporal, sus características personales y su historial de vida como principales fuentes de inspiración para su proceso creativo. Estableciendo un puente entre esas fuentes y la gramática del juego escénico del Clown, la persona accede a un sorprendente potencial creativo, cómico y único, explorando y poniendo en juego sus luces y sombras, en un alegre derroche de locura, poesía e humanidad”. Alain Vigneau

Ekaina

FIGURAS CORPORALES. IKASTARO PRAKTIKOA.

Bartzelonako La Puntual espazioan burutu zen ikastaro hau.

-Ines Pasic (Bosnia) Ekainak 29,30 eta Irailak 1

Gorputzeko atalen disoziazioa eta anatomiaren kontzientzia oinarri hartuta, gorputzeko atalak titere bihurtzeko magiara hurbildu gintuen emakume handi honek eta talde koordinazioa praktikatu genuen animalia bat hiruren artean irudikatu eta animatzeko adibidez. Zoom in eta zoom out.

Uztaila

EL ARTE DE NACER. BUTHOSOFIA DANTZA IKASTARO PRAKTIKOA.

Gasteizko Sala Baratzan burutu zen ikastaro hau.

-Jonathan Martineau (Quebec, 1982) Uztailak 23, 24, 25, 26 eta 27

Guztira 20 ordu

Anatomia vs bizi esperientzia

Gu espazioan vs espazioa gudan...

Butho dantza eta filosofia nahasten ditu Jonathanek eta gorputz dinamika oso interesgarrietara heldu ginen berarekin. Ekin eta hausnartu. Mugimendutik abiatuta esploratu genituen zelularik txikiak eta atmosferarik zabalenak. Lurretik eskegita egoten ikasi genuen.

Zenbait ikusgarri...

Aupapa. Zigzag Danza.

Izar. Marie de Jongh.

Euria. Markeliñe.

Linbo planeta. Dejabu Panpin Laborategia.

Desde el azul. Hugo e Inés Konpainia.

Drag-e. Logela Multimedia.

MiraMiró. Baal Konpainia.

Alicia después de Alicia. Kabia Teatro.

Mutu. Myriam Perez Cazabon.

Tomiris. Atx Teatroa.

Hozkailua. Artedrama.

Miss Karaoke. Metrokoadroka...

KIMUUUU 2018. Hausnartzeko aina belar.

KIMUK KUKU EGIN ZUENEOA

Kimuko deialdixak urten dau! Esan zidan Eneritz Zeberio. Berak parte hartutako beka batez ari zen. Ia bi hilabeteko alabatxoak neukan bularrean. Arte bizien eremuan bidaiatzeko kolektiboa sortzen ari ginen eta bizitza hankaz gora neukan oraindik. Gure lehenengo sorkuntza lana, hormonek aina artista bokazioak bultzatuta, haurrentzako izan behar zuen. Bixaldu einbizu Oihane! Erlojuz kontrakoa hasi zen, zaila zitzaidan formatu ordenatu batean sartu eta kontzentrazio une bat dilatatzea. Titi!!!!

EDOSKITZEAREN LOGISTIKA

Kimuko aukera ireki zitzaidan begien aurrean asimilatzeke astirik gabe eta ederra! Pentsatu nuen... Gero praktika zetorren eta edoskitzearen bidea hautatua nuenez, ai ai, agian birpentsatu beharra neukan. Egingo nuen bidaia oro beste heldu batekin egin beharko nuen eta ekonomikoki harena asumitu. Ederra gometxa! "boltsa, boltsa banuela baina, dirurik ez, dirurik ez..." Errealitatean kokatu eta agur Momix!

Apustua egin behar nuen dagoenera moldatuta, banekielako aurrera begira bide polita geneukala (Ma Kolektiboaren baitan) eta kimu bidaia lagun zoragarria izango zen!

MA KOLEKTIBOA

Ma kolektiboa jaio berria zen Kimuko ibilbidearen hastapenetan. Eneritz Zeberio, Andoni Gartzia eta hirurok osatzen dugu. Izenik ere ez genion jarri oraindik. Arte eremu desberdinetatik gatoz: dantza, antzerkia eta ikus entzunekoak. Aurretik zenbait kolaborazio egindakoak ginen eta elkartzea erabaki genuen, arte bizien kontzeptuaren baitan bide bat jorratzeko. Gure lehen asmoa haurrentzako ikusgarri bat sortzea zen, amatasunak bultzatuta agian. Eneritz eta biok hurrei zuzendutako konpainietan lan egindakoak ginen. Bageneukan nundik hasi.

Elkar Argitaletxearen Joseba Jaka Bekara aurkeztu ginen, taularatzeko sorkuntza proiektu batekin. Dinamikak hartzeko. Eman egin ziguten! Epeak mahai gainean, haurrentzako ikusgarria gerorako utzi genuen eta helduentzakoari heldu. Horrekin ari gara egun.

Zer den helduentzako eta zer haurrentzako galdera airean uzten dudala badakit, baina noan harira, badaezpada.

IBILITAKO BIDEK...BIDERATZERA NOAN IBILIAZ

Ostrak perla bihurtzea ote da artistaren lana? Hori egiteko gaitasuna du Alain Vigeneauk Claudio Naranjoren ustez; hala adierazten du *Clown Esencial* liburuko hitzaurrean. Bere ikastaroan bizitakoa perlazko salto salto puzgarri batean aritzea izan zen. Clown eta Gestalt gurutzatzen ditu Alainek (trans)formazioetan eta heldutasunetik haurtzaroko mina besarkatu eta kulunkatzeko, sormena perlatan lehertzen da. Haurrentzako ikusgarri bat sortzerakoan haurtzarora geure gorputzean ze formatan tatuatu zaigun ikusteak haiengana hurbil gaitzakeela iruditzen zait.

PERTENENTZIA. Haurrak pertenenzia behar du, nungoa den eta norekioa den.

GARDENA. Haurrak negar egiten du, jeloskor agertzen da, mimoak eskatzen ditu... baditu bere minak. Heldutasunerako pausuan min guztien gaintetik ageri da lotsa. Mimoen beharra baino, behar izate horren lotsa; jeloskor sentitzea baino, jeloskor sentitzearen lotsa... ONARTUA IZAN ALA EZ baitago jokoan.

HEGOA. Hegoa eman ezkerreko haurrak hegan egingo du. Hori du ederra clownak ere, baietz esaten diola bizitzari, konfidantza duela bizitzarengan, saiatu egiten dela. EGOA agertzen zaigu gero, epaitu egiten gaitu eta ezin dela gogorarazi, ez dela egokia edo komenigarria.

ORAIN. Ines Pasic 80ko hamarkadan Hugorekin elkartu eta lanean hasi zenean, entseguetako baten argia joan zen. Inesek zigarro bat zeukan ahoan piztuta eta haren

muturreko argitxo gorriak interesa piztu zien biei, hari begira begira... sorkuntza lana argitxo hartatik abiatu zuten. Pikutara *zer daukazu kontatzeko* galdera famatua! Sorkuntzaren abiapuntuak ez du zertan hausnarketa politiko bat izan. Arrazoimenetik pasa gabe geugan ditugu kezkek, bizipenak... eta zeluletan daramagun informazioa berez aterako da. Otzara batean sei sagar kontatu ditzakezu edo sei sagar deskubritu. Eta ez da gauza bera.

BIZI ESPERIENTZIA vs ANATOMIA. Jonathan Martineauk Francis Baconen autoerreturua erakutsi zigun adibide gisa. Gure aurpegia den bezala marraztu beharko bagenu, aurpegiko presio puntuak, tikak, tentsioak, bigunak... agertuko lirateke marrazkian, geure geurea litzake aurpegi hori. Bestea, benetakotzat dugun hori, irudia baino ez da.

ESPAZIOA. Jonathanekin espazioarekin bat egitea landu genuen, “ni naiz beraz harremantzen naiz” adierazpenetik “harremana dago beraz ni naiz” adierazpenera mugitzera gonbidatu gintuen, lerro zuzenik ezarekin eta entzumen irekiarekin mugimendu organikoetara hurbildu ginen, mugimenduaren azaleko iruditik partikularik txikiaren mugimendura. Espazioaren beraren presentziaz jabetzea eta hartaz baliatzea ederra izan zen. Ez ginen espazioan, espazioaren baizik.

DRAMATURGIA GARAIKIDEA. Alberto Conejerok eta Maria Velascok dramaturgia garaikidearen unibertsoa gonbidatu gintuzten. Ez da testua egitura kokatzen duena, ez du kontakizunak ikusgarria antolatzen. *Collagea* da, esaterako, muntaiarako dispositiboa. Aukerak biderkatzen dira eta denborak, espazioak ohiko definizioetatik askatu. Forma askeagoa eta ez horregatik forma gabea. Edozein kasutan hor ditugu nahi izan ezkerreko kontakizunari eusteko lau zutabeak.

Espazioa Gatazka

Denbora Pertsonaiak

Lauren artean karratu bat osatuz bata bestea estutzen dute pertsonaiari ihesbiderik ez usteko. Eta erromatarren garaiko *templumaren* ideia. Zeruan karratu bat marraztea. Antzezlana ez baita zero bat, zeruan marraztutako karratu bat baizik. Gure irudimenaren zeruan mugatutako karratu bat. Antzezlaneko kontakizuna ez da, beraz, Otik hasten eta ez da 0an amaitzen.

Gaur egun ezagun ditugu markotik ateratzen diren pintura lanak, puskatzen diren musika soinuak, idazkera deslotuak, askotariko espazio eszenikoak... Ez naiz narratibo

logiko zalea. Edo hobeto esan, ez dut narraziorako berezko joerarik ere. Lotura intuitiboen zale naiz. Zentzu erritmiko eta poetikoak gidatzen nau. Agian horregatik mugatuko naiz hasiera baten 3tik 6rako adin tartera. Sinbolikoaren garaia, araurik gabeko jolasena. Zeruan karratu bat egin eta zatitxo bati heldu.

Zer hartuko nuke orduan sorkuntzarako oinarri, hausnarketa iturri eta ikerketa bide, haurrentzako bereziki sortzeko, adin tartea 3tik 6rako izanik, batzuk agian ez dutela ikusten eta beste batzuk entzuten kontuan hartuz bide batez??

ARNASA!!!

Haurren taupadek frekuentzia propioa duten legez, adinaren arabera, arnasketak ere hala duela gogoratu nuen eta bila hasi nintzen. Nolakoa da haurren arnasa?

Haurren arnasa erritmoa helduena bezalakoa ez baldin bada, zirrikitu bat dago hor, aztertu beharrekoa.

Pertsonaia bakoitzak arnasteko modu bat duela uste dut, are gehiago, arnasteko modu batetik abiatzen dela pertsonaia bat. Eta edozein ikusgarriren oinarria erritmoa da nire iritziz.

Bestalde, momentuko norbere arnasaren arabera ez al da ba musika pieza berbera desberdin jasotzen? Eta banakako hainbat arnasek taldean jasotzen dutenean?

Taupadatxo batek klik egin zidan.

Behin muinera helduta, hor doa nire hausnarketaren funtsa, beti ere etorkizunean landu eta ikusgarri bat bideratzeko asmoz.

Nola arnasten dute 3-6 urte bitarteko hurrek? Galdera hau literalki ulertuta, hurrengo galdera eta sorkuntzari zuzenki lotua... **Nola hasnastu behar du ikusgarri batek 3 urtetik 6 urtera bitarteko hurrekin konektatzeko?** (nahiago dut "hurrengana heldu" kontzeptua ez erabili, norabide bakarrekoa eta ez aberasgarria delako)

Galdera honi erantzuteko nahiz birgaldetzeko, hurrekin lotura duten arlo ezberdinetako pertsonekin hitzegitea aberazgarria iruditu zait lehen pausu gisa. Haurrak galdekatu edo behatzea litzake beste pausua. Eta nola ez, askotariko artelanetan zigarroaren muturreko argitxoa ikustea. Bizipenen sakutxo bat betetzea da nire asmoa, gero eragin eta airera botatzeko. Konstelazio berri horretan karratu bat marratzu nahiko nuke, Ma kolektiboko kideekin batera, sorkuntza lan bat lurreratzeko. Ze sentrazio ederra litzakeen perla bat arnastea!

BIDAIA LAGUNAK

Bidaia berri honi ekiteko hiruzpalau testigantza jaso ditut. Sorkuntza arlotik kanpo izan arren argi neukan lehenengo pausua haurren arnasketa bera aztertzea zela. Nolakoa

da? Ze berezitasun dauzka? Eta hor agertu zait lehenengo bidaia laguna, txikitan ahoa irekitzeko eta A esateko eskatzen zidan gizon sinpatiko hura.

Xabier Txakartegi. (bideoan)

Xabier Txakartegi pediatra jubilatua da. Maila profesionalean errekonozitua eta Gernikan maitatua. Hurrekin duen esperientzia luzea altxor bat da dakarkidan hausnarketarako. Haurren arnasketari buruz galdetu diot.

Lola Fernandez de Sevilla. (bideoan)

Lola Fernandez de Sevillak, 2018ko otsailean, ASSITEJ-Españak antolatutako VIII Juan Cervera Saria jaso zuen. Haur eta gazteei zuzendutako antzerkiari buruzko ikerketa lanak jasotzen ditu sariketa honek. Berarekin harremanetan jarri nintzen eta interesgarria iruditu zait Kimuko aurkezpenerako bere ahotsa jasotzea.

Izaskun Torrealdai. (audioan)

Irakaskuntzan lana izanik, psikomotrizitateari arreta jarri zion Izaskunek. Bokazioak hegoa eman zion eta lana uztera ausartu zen psikomotrizitatearen unibertsoan buru belarri sartu eta lantokitxo bat martxan jartzeko.

Malen Zobaran. (audioan)

Musika tresna artean jaio zen Malen, bere ahizpa Andererekin batera. Gaur egun, hurrei zuzendutako musika akademia batean, pedagogia berrien lanketan aritzen da.

Hiru emakume sortzaile gehitu nahi dizkiot zerrenda estreinatu berriari, bidean elkartzeko aukera sortu bitartean, erreferentzia moduan baino ez bada ere. **Meredith Monk** (*walking song*), Blandine Calais-Germain (*cinética respiratoria*) eta **Ines Castel-Branco** (*Respira*).

Kimuko ibilbidearen ondoren irekitako lehioak, nire kasuan, argi denez, galdera forma du.

NOLA ARNASTU BEHAR DU IKUSGARRI BATEK 3 URTETIK 6 URTERA BITARTEKO HAURREKIN KONEKTATZEKO?